

Oraindik heltzeko dagoen arloa

ITZULPENGINTZA AUTOMATIKOARI BURUZKO MAHAI INGURUA. Orain arte egindako tresnen mugak eta zailtasunak nabarmendu dituzte Eibarren bildutako adituek



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

Mahaian, ezkerretik eskuinera, Joseba Abaitua, Gotzon Egia, Kutz Arrieta eta Arantza Diaz de Illaraza.

Ane Sarasketa | EIBAR

Itzulpen automatikoaren bidea guztiz heldu gabe dago. Munduan, sistema oso garatuak egon arren, itzultzaile automatikoek ezin diote aurre egin hizkuntzaren konplexutasunari, ez gizakiak egiten dion moduan behinik behin.

Herenegun Eibarko Makekkoa jauregian, UEUren egoitzan, elkartu ziren hizlariak euskaraz egiteko asko dagoela nabarmendu zuten. Lau hizlari aritu ziren: Kutz Arrieta informatikaria, AEBetako Logos eta Microsoft enpresetan aritutakoa (egun Diana teknologia enpresan dabil, Oiartzunen); Joseba Abaitua hizkuntzalaria, Deustuko Unibertsitateko irakasle eta itzulpen automatikoen inguruan tesia egin duena; Gotzon Egia itzultzailea; eta Arantza Diaz de Illaraza, Ixa taldearen sortzailea eta bertako koordinatzailea.

Kutz Arrietak hartu zuen hitza lehendabizi, eta itzulpen auto-

matikoaren ahalmenak eta mugak azaldu zituen. «Sarritan, esaten diren gauza asko eta asko ez dira egia izaten. Sistemen egileek, konpainiek, dagoena baino gehiago saltzen dute; alegia, produktua bera dena baino haratago joatean dira hitzez».

Hizlari guztiak ados zeuden esandakoarekin, itzulpen automatikoaren mugak oraindik argiak baitira, nonbait. Izan ere, halako sistemek ez dituzte itzulpen zehatzak egiten, oraingoz. «Eta erabiltzaile asko kexu dira. Baina badira konpon ezin dai-

tezkeen gauzak». Dena den, ibilbide luzea egin duten sistemen garrantzia nabarmendu zuen Arrietak, eta Logos sistemaz aritu zen. «30 urteko ibilbidea du, eta garrantzi handia du». Etorkizuna baikor ikusten duela gehitu zuen ondoren, fruituak gero eta hobeak baitira, haren esanetan.

Itzulpen automatikoaren erabilera zein izango den erabaki behar da lehendabizi. Sistema-aren sorkuntza prozesua aldatu egiten baita lortu nahi den helburuaren arabera. «Euskarazko itzulpen automatikoak egiterakotan, zertarako izango diren erabaki beharko da uneren batean, sistemen tipologia aukeratu ahal izateko».

«Laguntza sistemak»

Joseba Abaituak hartu zuen hitza ondoren. Kalitatezko itzulpen automatikoetan ez duela federik esan zuen. «Itzulpenak kudeatzeko aukeraz hitz egingo nuke nik. Itzulpen zuzenak eta kalitatezkoak egiteko sor daitezkeen giro egokiak eraikitzean datza kontua». Sistema egoiki baten diseinuak esanahia eta estiloa batu beharko lituzke, baina, egun, esanahia soilik gordetzen dute gehienek.

Itzulpen automatikoa itzulpen prozesuaren barruan kokatu zuen Abaituak. «Sistema hauen erabilera ez da ulertu behar informazio iturri gisa. Aitzitik, laguntza sistemak dira. Egun, prozesu guztietan makinak daude. Itzulpen automatikoa ere itzulpen prozesuaren parte da. Ez dago baztertuta, kateko zati bat da. Eta itzultzailea ere tartean dago».

Bestetik, Gotzon Egia itzultzailearen lan prozesua aztertu beharra azpimarratu zuen. «Ez da saio serioirik egin itzultzailearen lan prozesua aztertzeke, eta errotik aldatu da lan egiteko modua; hainbat fase agertu eta desagertu dira». Halako azterketa batek balio izango luke

ESANAK

KUTZ ARRIETA

(Informatikaria)

«Askotan, sistemen egileek, konpainiek, dagoena baino gehiago saltzen dute»

JOSEBA ABAITUA

(Hizkuntzalaria)

«Itzulpen zuzenak eta kalitatezkoak egiteko sor daitezkeen giro egokiak eraikitzean datza kontua»

GOTZON EGIA

(Itzultzailea)

«Makinei, gutxienez, gizakiei beste eskatu behar zaie. Edo gehiago»

ARANTZA DIEZ DE ILLARAZA

(Informatikaria)

«Euskararen alorrean egiteko asko dago, baina tresneria ugari ari da sortzen»

itzultzailearen laguntza tresna izan daitezkeenak diseinatzeko. «Izan ere, itzulpen automatikoen sistemek ez dakite itzulpenik egiten. Itzultzailearen ordeztu jarri nahi badira, ikusi beharko da noraino lor daitezkeen».


Gogor kritikatu zuen sistemok hartutako norabidea. «Sarritan, itzulpen horiek ez direla irakurriko uste dute hainbat erakundek, eta modu dekoratiboan jartzen dituzte sistemokin egindako itzulpenak. Makinen itzulpenak zertarako behar ditugun galdetu beharko genuke». Itzulpen automatikoen kalitate eskasa nabarmendu eta zera gehitu zuen: «Makinei, gutxienez, gizakiei beste eskatu behar zaie. Edo gehiago».

EUSKARA

Prototipoa eta azterketa

Euskarazko itzulpen automatikoen alorrean bi saio nagusi aipa daitezke. Arantza Diez de Illaraza, Ixa taldearen sortzaile eta koordinatzailea, Matxin sistemaren prototipoaz mintzatu zen. Ingelesetik eta gaztelaniatik euskarara itzultzeko sistema baten proiektua da Matxin. Izen sintagmen unitateetan oinarritutakoa. Orain arteko sistemek ez dituzte sintagmak oinarri hartu, «baina euskararen problematika ezberdina da», esan zuen. Itzulpen automatikorako tresnak sortzea zen Ixa taldeak zuen helburua, baina, bidean, helburuak gehitzen joan dira. Etorkizunari baikortasunez begiratzen dio Diez de Illarazak, errealtateari begira betiere. «Euskararen alorrean egiteko asko dago oraindik, baina tresneria ugari ari da sortzen bidean».

Bigarren proiektuan, Kataluniako Automatic Trans enpresa euskarazko sistema baten bideragarritasuna aztertzen ari da (Joseba Abaitua aholkularitza taldean dago).



IRUÑA'KO SAGARDOTEGIA
ETA GARNATXA ARDOTEGIA

TRADIZIO GARAI DA
SAGARDOTEGI GARAIA DA
ZURE MAHAIAN EUSKAL HERRIKO OKELARIK ONENA

Joaquin Beunza, 17 • 31014 Iruñea • Tel.: 948 38 46 70